

CARITASEN KANPAINA

2012eko irailaren 30

URTEAN ZEHARREKO XXVI. DOMEKEA (B)

«Zure apurra, guretzat urrea»

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Lagungarriok liturgiarako talde suspertzailearen esku itzi.
- ✿ Lagungarriak alde zuretik prestatu izan dira. Kontuan izan kanpaina egiten danean Jainko herriaren oroitzean sartu beharreko gertaeraren bat izan daitekela.
- ✿ Liturgi lagungarriekin batera doazan materialak irakurtea behar da kanpainaren sena ulertzeko eta homilian esan behar dana argitzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: beste domeka batez Jesus Jaunak deituta batu gara Eliza lez, bere hitza entzuteko eta Eukaristia ospatzeko.

Aita Jainkoak dei egiten deusku behin eta barrero, bera aurrean dogula bizi gaitez, mundua eta historia aukerez betetako leku lez ikusi daigun, besteekin alkarlanean eraiki gura dogun giza familiaren handitasunaz jaubetu gaitez.

Pastoral ekiturte barria martxan dala, Caritasek gogoetarako eta dirua batzeko jardunaldia aurkezten deusku, "guztien gaintetik, jantzi zaitez maitasunez" goiburu esanguratsua pean. Askatasun barik dagozanak ezin doguzala ez ahaztu ezta ikusezin egin be gogoratu gura deusku.

Gizarteko kide dira eta euren gizarteratzea, arrakasta da gizartearentzat berarentzat be. Jarri gaitez huts egin dauanaren lekuan eta holantxe ikusiko dogu zer bait egin daikigula euren azkena bakarta-

CAMPAÑA DE CÁRITAS

30 de septiembre de 2012

XXVI DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (B)

«La caridad más allá de la justicia»

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✿ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✿ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es buena para comprender el sentido de la Campaña e iluminar lo que se diga en la homilía.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: El Señor Jesús nos ha convocado, como cada domingo, a escuchar su palabra y celebrar la Eucaristía, reunidos como Iglesia.

Dios Padre nos sigue invitando, una y otra vez, para que vivamos en su presencia, para que veamos el mundo y la historia como un lugar de posibilidades, para que trabajando codo a codo con los demás descubramos la grandeza de la Familia humana que tenemos que construir.

Iniciado el nuevo curso pastoral, Cáritas nos presenta en este domingo la jornada de reflexión y colecta con un lema sugerente: «La caridad más allá de la justicia». Nos dice que no podemos olvidar ni hacer invisibles a las personas privadas de libertad.

Forman parte de nuestra sociedad y su reinserción es un éxito para la misma sociedad. Pongámonos en el lugar de quien se ha equivocado y entendamos que pode-





dea eta estigma izan ez daitezana eta giza duintasuna berreskuratzen da.

Eukaristia ospatzera doan alkarte lez, zabaldu daiguzan gure ateak eta bizi daigun txikienei eta ahulenei harrerea egiteak dakarren poztasuna.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jaungoikoa eta lagunurkoa maite daiguzan gure bihotzak zuzentzen dituan Jauna zuekin.

DAMU OTOITZA

Ospakizunaren hasieran, eskatu deogun Jaungoikoari gure bihozbarritzea (*isilune*):

- Danok elkar maitatuz eta errespetatuz, familia bakarra osatu daigula gura dozu.
Erruki, Jauna.
- Bizitzako zoriona errespetutik, eskaintzatik eta zerbitzutik datorrela dinoskuzu.
Kristo, erruki.
- Txikiak eta apalak babesten eta defendatzen dozuz.
Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI

(Zenb 11, 25-29)

Moisesek Israel herria gidatu gura dau, esperientzia eta heldutasunagaitik nabarmentzen diran eta euren jakituriagaitik nagusiak deitzen dabezan 70 personen laguntzagaz. Honek iragarpenak egiteko misinoa daukie, baina egiteko hori ez jagoke eurei bakarrik. Kontakizunean azpimarratzen danez, Jaungoikoak berak gura dauanari emon deikeoz doeak, ez dau ez ezerk ez inork derrigortzen.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (St 5,1-6)

Santiagoren gutuna, bizitza gauzak eukitea eta pilatzea dala pentsatzen dabenei zuzendutako ohartarazpena da, batez be, ongizatea bidebakokeriatik, iruzurretik, nork bere segurtasuna ziurtzatetik eta besteen beharriazanei erantzuteari uko egitetik sortzen bada. Entzungo dogun testu honetan, gogor kontra egiten jako bidebako aberastasunari.

mos hacer algo para que su destino no sea la soledad y el estigma, y puedan recuperar la dignidad humana.

Como comunidad que se dispone a celebrar la Eucaristía, abramos nuestras puertas y vivamos el gozo de la acogida a los pequeños y a los más desfavorecidos.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que dirige nuestros corazones para que amemos a Dios y al prójimo, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones (*instantes de silencio*):

- Tú que quieres hacer de nosotros una sola familia donde todos se sientan queridos y respetados.
Señor, ten piedad.
- Tú que pones la felicidad de la vida en el respeto a todos, en la entrega y en el servicio.
Cristo, ten piedad.
- Tú que eres protector y defensor de los pequeños y los humildes.
Señor, ten piedad.

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

(Nm 11, 25-29)

Moisés trata de guiar al pueblo de Israel, con la ayuda de 70 personas probadas en experiencia y madurez, llamados los ancianos por su sabiduría. Éstos tienen también la misión de profetizar, pero no en exclusiva. El relato nos insiste en que Dios puede dar sus dones a quien quiera, que no está obligado a nada ni a nadie.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (St 5,1-6)

La carta de Santiago es una llamada de atención para cuantos piensan que la vida es sólo tener y acaparar; una llamada de atención, sobre todo, si el bienestar nace de la injusticia, del fraude o de la propia seguridad, sin atender a las necesidades de los demás. La riqueza injusta es atacada con fuerza en este texto que escuchamos ahora.

OHARRA EBANJELIOARI

(Mk 9, 38-43.45-47-48)

Jesus alkartea egitera, era guztietako banaketak gainditzera etorri da eta bere planteamentuan ez dau lekurik onena “geurea” dala eta “besteenak” ez dauala balio esateak; izan ere, horixe da batere lagungarriak ez diran aldeak sortzeko erarik onena. Inork ez dau eskusiban gizabanakoen eta gizartearen onerako jarduteko gaitasuna. Hobe geunke batasuna eta osagarritasuna bilatzea.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Zabaldu deiegun gure bihotza gizon eta emakume guztien beharrezanez eta, uste osoaz, aurkeztu deiegun gure otoitza txiro eta baztertuen ondoan dagoan Aitari.

- Pastoral ekiturte barriari ekin deutsan Bizkaiko Elizearen alde; Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko IV. Egitasmoaren haritik, gure alkarteak erabarritzen jarraitu daigun, Jaungoikoaren Hitzaren argitan, gizateriari deutsan maitasunaren lekuko izan gaitez. *Eskatu deiegun Jaunari.*
- Caritasen alde eta bertan jarduten dabenen alde; eredu izan daitezala guretzat eta geuk be, jarreraz aldatuz, itxaroten eta babesten dauan Aitak lez jardun daigun. *Eskatu deiegun Jaunari.*
- Preso dagozanen eta bakartadea, bazterketa eta indarkeria jasaten dabenen alde, euren itxaropena barritu daien eta bildurra, oinazea eta zentzunbakokeria sendatzen dauan eta bigarren aukera sekula ukatzen ez dauan Aitaren maitasuna aurkitu daien. *Eskatu deiegun Jaunari.*
- Jesusen berbak entzun doguzanon alde, bere irakaspenei jarraituz, guztion zerbitzari izan gaitez eta maitasunak eraginda jarduten dabenekin alkarlanean jardun daigun Jesusi txiki eta babesbaikoengan harrerea eginez. *Eskatu deiegun Jaunari.*

Jaungoiko Aita, emon deuskuzun legea zuzanako eta lagunurkoaganako maitasunean gauzatzen da; emoiguzu indarra, maitasun hori gure bizitzetan gauzatu daigun. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

MONICIÓN AL EVANGELIO

(Mc 9, 38-43.45-47-48)

Jesús ha venido a hacer comunidad, a superar cualquier división, y por eso no tiene cabida esa actitud de creer que lo “nuestro” es lo mejor, o que lo de los “otros” no sirve. Ese es el mejor modo de crear diferencias que a nadie ayudan. Nadie tiene en exclusiva la capacidad de trabajar por el bien de las personas y de la sociedad. Haríamos bien en buscar la unidad y la complementariedad.

ORACIÓN UNIVERSAL

Abramos nuestro corazón a las necesidades de todas las personas y presentemos nuestra oración confiada al Padre que está cerca de quien es pobre y siente la exclusión.

- Por nuestra Iglesia de Bizkaia que acaba de comenzar el nuevo curso pastoral, para que, con el IV Plan Diocesano de Evangelización, nos sigamos empeñando en revitalizar nuestras comunidades atentos a la palabra de Dios, para ser testigos de su amor a la humanidad. *Roguemos al Señor.*
- Por Cáritas y quienes trabajan y colaboran con ella, para que nunca dejen de interpelarnos, y así, se dé en nosotros un cambio de actitud y tengamos la actitud del Padre que espera y acoge. *Roguemos al Señor.*
- Por quienes están presos, quienes sufren soledad, abandono y violencia, para que renueven su esperanza y se encuentren con el amor del Padre que cura el miedo, el sufrimiento, el sinsentido y nunca niega una segunda oportunidad. *Roguemos al Señor.*
- Por nosotros que hemos escuchado las palabras de Jesús, para que siguiendo su enseñanza, aprendamos a ser servidores de todos, a colaborar con quienes actúan movidos por el amor y a acogerlo a él acogiendo a los más pequeños e indefensos. *Roguemos al Señor.*

Dios Padre, la ley que nos has dado se realiza en el amor a ti y al prójimo, danos fuerza para realizar este amor en nuestras vidas. Por Jesucristo, nuestro Señor.





OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Caritasi emoten deutsalgun diruak helburu soziala dauka, 'arimadun dirua' da.

Gaur batutako dirua Elizbarrutiko Caritassen esku itziko dogu. Eskerrik asko guztioi eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

HAUSNARKETA: "PRESOEN ETA GURE ALDEKO OTOITZA":

Jesus Jauna, Zu beti izan zinan txikien, txiroen eta baztertuen adiskidea, preso izatearen esperientzia bizi nahi izan zendualarik; salatu, atxilotu eta giltzaperatu egin zinduezan gau ilunean; kartzelara eroan zinduezan eta galdeketak, irainak, isekak, tratu txarrak eta torturak jasan zenduzan; bidezko baimen barik epaitu, kondenatu eta exekutatu zinduezan, historian zehar eta gaur bertan beste askori gertatu izan jakon eta gertatzen jakon lez.

Maitasunak eraginda, eurekin bat egin zenduan eta euren artean agertu zinan: kartzelan egon nintzan eta ni ikustera etorri zinan. Zeinu harrigarri honen aurrean, gaur egungo presoan alde eskatzen deustugu,

- Ez daien pentsatu, gizarteak kondenatzen ditualako, Zuk baztertu egiten dozuzala.
- Ez deioen sekula uko egin gizaki eta Jaungoikoaren seme-alaba lez jagoken duintasunari.
- Sekula ez daien euren barruko askatasuna galdu.
- Ez daitezazan etsipenean jausi.
- Ez deioen uko egin era guztietako zapalketa, jazarpen eta bidebakokeriaren aurka burrukatzeari.
- Jokabidez aldatzen saiatu daitezazan.
- Euren bizitzaren eta gizarteratzearen alde egin daien.
- Ez daiezan euren familia eta adiskideak bertan behera itzi eta honeek be ez eurak.
- Euren egoerea Zugana hurreratzeko baliagarri izan dakien.

Geure alde be eskatu gura deustugu, gizarte eta Elizbaren alde, gauza guztien gainetik, maitasunaz jantzita,

- Ez daiguzan presoak, preso diralako, baztertu.
- Persona lez errespetatu daiguzan.
- Euren gan ikusi eta zerbitzatu zaiguzan.
- Askatasuna berreskuratzean, maitasunez eta ulermenez hartu daiguzan.
- Gizarteratzen lagundu deiegun.
- Gure maitasunak, azken batean, Zuk maite dozuzala ikusten lagundu deien.

Amen.



Caritas
Bizkaia

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

El dinero que entregamos a Cáritas tiene un destino verdaderamente social, es un 'dinero con alma'.

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. Gracias a todos por vuestra generosidad.

REFLEXIÓN: "ORACIÓN POR LAS PERSONAS PRESAS Y POR NOSOTROS-AS":

Señor Jesús: Tú siempre te mostraste amigo de los pequeños, de los pobres y de los excluidos: hasta el punto de querer pasar por la experiencia del preso: fuiste denunciado, detenido y apresado en la oscuridad de la noche, conducido a la cárcel y sometido a interrogatorios, insultos, burlas, malos tratos y torturas, juzgado sin las debidas garantías, condenado y ejecutado (como muchos a lo largo de la historia y también hoy).

Tu amor te llevó a identificarte con ellos y a permanecer presente en ellos: estuve en la cárcel y viniste a verme. Ante este gesto tan desconcertante nos atrevemos a pedirte por las presas y presos de hoy para que:

- No piensen que porque la sociedad los condena, Tú los rechazas.
- No renuncien ni un solo momento a su dignidad de personas e hijos de Dios.
- No pierdan nunca su libertad interior.
- No se desesperen ni caigan en depresión.
- No renuncien a esforzarse contra todo tipo de opresión, represión e injusticia.
- Se afanen en cambiar de conducta.
- Hagan por su vida y por su reinserción.
- No abandonen a sus familias y amigos, ni sean abandonados por ellos.
- Su situación los acerque más a Ti.

También queremos pedirte por nosotros, la sociedad y la Iglesia para que, con una caridad más allá de la justicia:

- No rechacemos a las presas y presos por el hecho de serlo.
- Les respetemos como personas que son.
- Te veamos y sirvamos a Ti en ellos.
- Los acogamos con cariño y comprensión cuando recobren la libertad.
- Les acompañemos y ayudemos a reinserirse.
- Nuestro amor, en definitiva, les ayude a descubrir que Tú les quieres.

Amén.